

MARIASUN LANDAREN KROKODILOA OHE AZPIAN

Amaia Serrano Mariezkurrena

0. Sarrera

Mariasun Landa (Errenteria, 1949) haur eta gazte literaturaren esparruan oso idazle ezaguna da. Hainbat liburu arrakastatsuren arrazoia egileak bere irakurleei eskaintzen dizkien istorioen atzean dago, irakurketa maila ezberdinak dituzten kontakizunek, helduen ikuspuntua eta haur eta gazteen bizipenak uztartuz, errealitateari egindako kritika iradokitzailean hain zuzen. Zentzu honetan, Anabel Sáiz Ripoll doktoreak dio “Landak konpromiso bikoitza mantentzen du[ela]; etikoa (...) gure gizartearen alderdi desatseginak begien aurrean jartzen dizkiguten gai pentsarazleak lantzen dituelako, ulertezintasuna, beldurra edo bakardadea bezalakoak; baina konpromisoa (...) haratago doa eta linguistikoa ere bada, gaien unibertsaltasunari eta errealitatearekin duen konpromisoari traizio egin gabe euskaraz idazten baitu”¹ (2007: 18).

Bide literarioan zehar Mariasun Landak sari ugari jaso ditu. Aztergai dudana *Krokodiloa ohe azpian* (2002) ipuinarekin, esaterako, Tolosako Udalak antolatutako Antonio Maria Labaien saria jaso zuen 2002an eta, bestetik, 2003an Haur eta Gazte Literaturan Sari Nazionala erdietsi zuen. Azken horrek esanahi berezia izan zuen, Mari Jose Olaziregik dioen moduan, jatorrian euskaraz idatzitako obra batek sari hori lortzen zuen lehen aldia zelako (2005: 155). Bestalde, 2006an kontakizun hau bera IBBYren (International Board on Books for Young People) Ohorezko Zerrendan sartu zuten. Irakurleen zein kritikarien artean oihartzun handia izan duen narrazio hau gaztelaniara, katalanera, galegora eta ingelesera itzuli zen 2004an eta laster bretoierara eta errusierara ere bihurtuko dute, euskal haur eta gazteei ez ezik, beste hizkuntza horietakoei ere irakurtzeko aukera eskainiz.

¹ Itzulpen guztiak nireak dira, kontrakoa adierazi ezean. Jatorrizkoa: “Landa mantiene un doble compromiso; ético, al tratar temas (...) que nos hacen pensar porque ponen ante nuestros ojos aspectos poco gratos de nuestra sociedad, como la soledad, el miedo o la incomprensión; pero el compromiso, (...) va más allá y es también lingüístico porque escribe en euskera sin traicionar ni la universalidad de los temas, ni su propio compromiso con la realidad”.

Krokodiloa ohe azpian ipuinak inolako zailtasunik gabeko narrazioa dirudi, baina, barregarri zein etsigarri gerta daitezkeen egoeren azpian zer ezkututzen den argitzea izango dut helburu lan honetan, eta, horretarako, lauso hori areagotzen duten pertsonaiaren izaera, espazioaren trataera, baliabide literarioak, erritmoa, kontakizunaren amaiera eta, azkenik, errealismo kritikoa izango ditut hizpide.

1. Bilbearen nondik norakoak

Mariasun Landaren ibilbide literarioan ohikoa da animaliak topatzea. Anabel Sáizen hitzetan, “gure idazlearen literatura animaliaz beterik da (...) aitzakia gisa erabiltzen ditu, mundua ulertu eta besteei azaltzen saiatzeko; [errealitatetik] urrundu eta behatzeko”² (2007: 10). *Krokodiloa ohe azpian* ipuinean –izenburuak berak adierazten duen bezala– krokodilo bat dugu.

Gizartea aztertzeko askatasun hori animaliek eman arren, istorio honen protagonista Juan Jose mutil gaztea da, kontakizunean zehar J.J. izen anonimoaren bidez agertzen dena. Modu horretan, pertsonaiaren izena “unibertsala” bihurtzen da, errepikatzen den “J” hizkiaren atzean letra berberaz hasitako beste hizkuntzetako edozein izen egon daitekeelarik. Beste aldetik, izen horrek ordenagailu baten teklatuak egiten duen soinu erritmikoa gogoraraz dezake eta, bide batez, pertsonaiaren izaera eta lan metodikoa³.

Bilbea ez da batere katramilatua: J.J.-k eguneroko ohiturari jarraiki esnatu eta lanera joateko zapatak jartzera doala, oinetakoak jaten dituen krokodilo bat aurkitzen du ohe azpian. Ezin sinetsirik, horri arrazoi logiko bat bilatzen saiatzen da, ezertxo ere lortu gabe, ordea. Animalia etxean azaldu zaionetik, egunetik egunera okertu egiten da bere osasun fisiko eta mentala, batez ere krokodiloa berak ez beste inork ikusten duela konturatzen delako.

Lanean zerbait gertatzen zaiola igarri eta medikuarenera joatea gomendatzen diote. Hortik aurrera J.J. ohartzen da berea –krokodilitisa– gaixotasun arrunta dela egungo

² Jatorrizkoa: “La literatura de nuestra escritora está llena de animales (...) los utiliza como pretexto, para tratar de entender el mundo, de explicárselo a los demás; para distanciarse y observar”

³ Ideia hau Paulo Kortazar lagunari zor diot.

garaiotan eta, hura onartzeko bideari grinez eutsi nahirik, medikuak gomendatutako pilulak hartzen ditu. Behar adina baino gehiago hartu ere. Horregatik, sendabideak nahi bezalako ondorioak erdiesten ez dituela ikusita, bere buruaz beste egiteko ahalegina egiten du, baina arrakastarik gabe. Izan ere, ipuinaren bukaeran ia-ia ustekabean agertzen da bere lankide Elena –isilpean maitatu duena– eta haren adiskidetasunak eta maitasunak etorkizunari begira jarriko du J.J., zeinak krokodiloa sugandila izateraino txikitu eta zorientasun izpiak nabarmentzen hasiko den.

2. Protagonistaren buruhaustea: espazioen galera eta berreskurapena

Esan bezala, beraz, J.J.-ren kezka nagusia krokodiloak bere bizitzan hartzen duen protagonismoarekin amaitzea da. Eguneroko monotoniatik ateratzen duen animaliak izugarritzko ezinegona sortzen dio. Ala krokodiloak egonezina areagotu besterik ez ote dio egiten? Lehenengo kapituluan protagonistaren ohitura batzuk ageri dira (zazpietan esnatu, garbitu, bizarra egin, jantzi, lanera joan etab.). Betebehar arrunt horietan ari denean ohartzen da ohepean krokodilo bat duela. Narrastiak pertsonaia nagusiarengan beldurra sortzen du, izan ere, badirudi animalia bera dela estutasuna irudikatzen duena eta, horixe da, hain zuzen, mutil gazteari izua sortzen diona. Horregatik, narrastia arazoaren arazoia baino, sintoma bat besterik ez da.

Hori dela-eta, gaitz larri bihurtzen ari den bakardadeak, bizimodu azkarrak eta eguneroko lan metodikoak baditu bere ondorioak eta J.J.-ri ohe azpian kokatu diote buruhaustea. Egoera komikoak (nola liteke egun batetik bestera krokodilo bat izatea ohepean?) eta horri aurre egiteko J.J.-k erabiltzen duen logika arrazionalistak irakurlea absurduaren mugan diren egoerak irudikatzen darama.

Mundu magikoa den loaldiaren ostean, ohepean topatutako krokodiloak protagonista lekuz kanpo uzten du. Amesgaizto batean dela pentsatzen jarraitzen du. Mutil gazteari Eulalia bere lankide beteranoaren esanak eta iradokizunak (mutilak bakarrik bizitzearen ondorioak, ezkontzearen onurak...) efektua egin izan balute bezala, J.J.-rengan bakardadearen mamua jaiotzen da. Edo, gutxienez, erroturik bazen ere, ikusezin izatetik ikusgarri izatera pasatzen da, animalia itxura hartuz.

Krokodiloak sortuko dizkion arduren artean bada bat bereziki interesgarri iruditu zaidana: espazioaz jabetzearena hain zuzen. Narrastia agertzen den unetik J.J.-ren gelaz nagusitzen da eta bere presentzia soilak ahuldu egiten du protagonista, krokodiloa jaun eta jabe bihurtuz. Badirudi beldurrak preso duela mutila eta ordura arte erabilitako logikak ez duela halako egoera baten aurrean lekurik. Hasieran, logela bisitari bereziarentzako uzten du, bera egongelara aldatuz. Ondoren, bulegoan ordu asko egiten ditu, hori bere etxe bihurtu nahian edo. Etxea, bere etxea, ordura arte “babesleku” izandakoa, arrotz baten esku utzi eta hura edonola saihestu nahi du: “bulegoan (...) halako lasaitasun bat sentitzen zuen. Etxea ez baitzen bere etxea, baizik eta ofidio eder baten babeslekua, bulegoa bihurtu zitzaion etxe ia” (25). Baina espazio fisikoa ez ezik, krokodiloak J.J.-ren burua ere menderatzen du. Esan liteke, narrastiaren agerralditik aurrera mutil gaztearen gogo/gorputza haren menean direla.

Bost kapituluren buruan, baina, egoerak gain egin baino lehen, protagonista konturatzen da krokodiloa onartu besterik ez duela, eta horretarako aholku bila hasten da, lankideei bere esperientziaren berri emateko estrategia batez baliatuz: bere gaitza lagun bati egotziko dio. Horrek, ordea, bi gezur ezkututzen ditu bere horretan: ipuinean zehar lagunik ezagutzen ez zaionez, adiskideren bat izatea eta, bestea, gaixo dagoena bera ez beste bat izatea. Horregatik, Eulalia emakume esperientziadunak, ironikoki (burla moduan) edota J.J.-ren kontuak sinesgarritasunik ez duela agerian uzteko, bere “lagun baten lehengusuaren” gaixotasun berezi baten berri ematen die lankideei. Hona hemen emakumearen asmoa modu nahiko garbian azaltzen duen aipua, zakurra dela pentsatzen duen mutilaren adibidea puzean: “–Eta pixa egiteko hanka altxatzen zuen! – segitu zuen Eulaliak **burlaizez**⁴ (...)” (27). J.J.-ri, ordea, esperientziaren antzekotasunez ohartu eta medikuarenera joateko balio dio kasuak. Askotan gertatzen den bezala, errazago antzematen dira norberaren arazoak besteren azalean⁵.

Sendagileak pilulak, supositorioak eta eferbeszenteak agintzen dizkio: krokodifil, krokoditalidon eta krokoditamina hurrenez hurren. Ipuinaren lehen inflexio-puntu honek egoeraren norabidea aldatzen du, batetik, dagoeneko protagonistak bere gaixotasuna onartu eta horri aurre egitea erabakitzen duelako eta, bestetik, narrazioan irakurleari tonu ironikoan azaldutako antsietateak muturrekoagoa den beste bide bat hartzen

⁴ Azpimarra nirea da.

⁵ Ikus, bestela, baliabide literarioei buruzko hurrengo atala, non “ispilu jokoa” aztertzen dudan.

duelako, non egoera parodikoak irudikatuko diren. Gainera, modu geroz eta gardenagoan azaltzen du narratzaileak J.J.-ren eritasuna nolakoa den, ordura arte emandako lorratzak probestuz, pertsonaiaren pentsamenduaren bidez esplizituki adieraztera heldu arte: “izan ere, ordura arte ez zen gauza izan [J.J.] sentitzen zuena izendatzeko edo deskribatzeko: abandono sentimendua, bakardade egoera, sexu autokudeaketa, bizipoz nahasteak, agresibitate ezkutua” (46).

Sendabidearen lehen pausok esperantzaren atea irekitzen diote J.J.-ri (“Ez zegoen zalantzarik, pilula haiek bizitza aldatuko zioten”, 46), baina berehala dator gainbehera: bizi izandako etsipenari amaiera emateko presaz-edo, pilula bat baino gehiago irensten du eta ondorioak ez dira espero zitezkeenak. Mutilak lanean jokaera zakarragoa du (Elenaren eta bere arteko tarte zabalduko duen erantzun gordina da horren lekuko) eta, azkenean, krokodiloaren izaera bera barneratzen duela dirudi. Nagusiaren zapatei begira jarri eta horiek jateko grinari eutsi ezinik dagoela miazkatzen dituenean, ipuina bere klimaxera heltzen da. Une horretan, preseski, krokodiloak mutila bere osotasunean menderatzen du eta eldarnioetatik ihes egiteko modu bakarra ikusten du J.J.-ak: amore eman eta bere buruaz beste egitea.

Alabaina, bere asmoa ez da betetzen eta oraingoan bai, krokodiloa bere bizitzaren parte bilakatzeko ahalegina egingo du: “azken batean, bera bezain gizon bakarti batentzat, krokodiloa konpainia exotikoa izan zen” (61). Baina hausnarketa hori egiten duenerako, bada berreskuratu duen zerbait: bere logela, krokodiloak inbaditutako espazio intimo eta pribatua. Hortik aurrera, Elenaren konpainiaz eta maitasunaz baliatuko da egoerari aurre egiteko eta neska izango du bidaide esperantzaz beteriko bizitza hasi berrian.

3. Baliabide literarioz jantzitako kontakizuna

Krokodiloa ohe azpian ipuinean gehien nabarmentzen diren baliabide literarioak ironia eta parodia dira, lehenengoa jarrera kritiko baten emaitza izanik eta bigarrena, umorearen ondorioa. Biak ala biak maisutasunez erabiltzen ditu Mariasun Landak, izan ere, ipuinak aurrera egin ahala ironia parodia bihurtzen da, oharkabean ia-ia. Halaber, bigarren mailako pertsonaia estereotipoek (J.J.-ren amaren rola betetzen duen Eulalia andrea, harakin garai, indartsu eta zakarra, Elena bekadun atsegin eta langilea, esaterako) baliabide horiek indartzeko balio dute. Nolanahi ere, noizbehinka

irakurlearengan tentsio uneak sor daitezke, J.J.-ren desesperazioak beste pertsonaia baten ulertezintasunarekin topo egiten duenean, esaterako bigarren kapituluan J.J.-ren desesperazioak Jolas Parkeko gizonaren telefonoz bestaldeko tonu ironikoarekin talka egiten duenean.

Baliabide nagusi horiez gain, bada Landak sotilki darabilen beste bat: ispilu jokoak. Paralelismo hori hiru mailatan gertatzen da: alde batetik, protagonista eta krokodiloaren artekoa dugu, zeinetan J.J.-ri gertatzen zaion oro krokodiloarengan ere ikus dezakegun. Horren adibide garbia da mutila negarrez jaiki eta krokodiloari begiratzean, haren begietatik “malko ale lodiak isurtzen zitue[la]” (50) ikusten duenean⁶. Beste alde batetik, J.J.-ren eta Elenaren ispilua dugu, non Elenak bere lankidearengan ikusten duen gaixotasuna harekin identifikaturik sentiarazteko tresna bihurtzen den. Irakurlea erraz konturatzen da Elenak baduela J.J.-renganako estimu moduko sentimenduren bat, amaiera arte zer den adierazten ez dena. Ondorengo aipuak agerian uzten du Elenak mutilari gertatzen zitzaionaren berri izan zezakeela: “J.J.-k bihotza saltoka nabaritu zuen, neska begira zeukalako. Begi ilaun ederrez begiratzen zion, eta begirada hark zuzen-zuzenean jotzen zuen bere Sekretu Handira” (25). Azkenik, irakurlearen eta protagonistaren arteko identifikazio posiblea izango genuke, zeinak, haur edo gaztearen gogo-aldartearen eta beldurren arabera, bien arteko lotura sendo bat egoteko aukera eskaintzen duen. Hirugarren erlazio hori, Xabier Etxaniz Erlek dioen moduan, “irakurketa haurra asetzen duen prozesua den neurrian, bere behar psikologikoei erantzuten dien neurrian, onuragarria izango zaio haurrari, hezigarria” (1997: 65) eta horretarako biderik onena irakurleak egoeraren edota pertsonaiaren batekin egindako identifikazioa da. Bide berean, iruditzen zait narrastiak J.J.-rengan sortzen duen harridura eta beldurra haur edo gazte batek iluntasunari edota bakarrik gelditzeari izan diezaiokeen antzekoak direla.

Testuartekotasunaren esparrura joz, ipuin honek Kafkaren *Metamorfosia*-rekin zerikusirik baduela esango nuke, izan ere, bertako *leitmotive*-a darabil kontakizunean, baina betiere haurrentzat egokiturik. Manu López Gasenik dioen gisan, “gizatasuna galtzeko zorian den gizakiak bere burua ezagutzeko zailtasunak ditu, edo *gauza hori*

⁶ Bidenabar, aipatu nahi nuke gaztelerazko “lágrimas de cocodrilo” esamoldea gogorarazi zidala eszenak, batez ere itxuraz J.J.-k (eta zer esanik ez krokodiloak) negarrez egoteko inolako arrazoirik ez duelako. Euskaraz, baina, ezin halako hitz jokorik egin, “lágrimas de cocodrilo”-ren ordaina “gezur-negar” (*Elhuyar* dixit) edo “tipula-negar” (*Zehazki* dixit) baita.

bera dela onartzea kostatzen zaio”⁷ (2004: 180). Halaber, Sáizi bezala (2007: 15) gertatzen zait niri ere eta, J.J. esnatu eta ohepean begiratzen duen bakoitzean, Monterrosoren narrazio labur eta ezaguna etortzen zait gogora, aldaera batekin, noski: “esnatu zenean *krokodiloak* bertan zirauen”.

Krokodiloa ohe azpian ezkutaturik dago kontakizunean; sinbolo horrek adierazten duena, ordea, oso agerian da errealitatean: beldurra, larritasuna, depresioa, bakardadea, inkomunikazioa etab. Azken batean, bizi garen gizarteko arraildurak erakusten dizkigu ipuinak eta, era berean, gaia unibertsal egiten du, egoera eta pertsonaia jakin batzuen bidez. Unibertsaltasun hori transmititzeko, gutxienez hiru bide baliatzen ditu Mariasun Landak: alde batetik, protagonistaren izena (“bilbearen nondik norakoak” atalean aipatu gisan), beste alde batetik, sentimenduen esparrua (edonork bizi ahal izan duen bezalakoa) eta, azkenik, denboraren trataera. Denbora hori zehaztugabea da gehienetan, bai erabiltzen diren adierazpideek inolako erreferentzia egunik ez dutelako: “goiz hartan”, “sukurtsal hartan zeramatzan urteetan”, “oso berandu”, “biharamunean” (zenbat egunen ostean?), baita kapituluaren izenburuetako zenbakiak narrazio-zatien ordena besterik ez dutelako eskaintzen, denborari dagokion edozein ñabardura ezkutuan utziz.

Krokodiloa, gainera, dinosauroekin bizi izandako narrastia izanik, berariaz hautatutakoa da, aipatu gaitzak hura bezain zaharrak direla erakusteko, alegia. Halaber, Hans Biedermann-en sinboloen hiztegiko lehen lerroetan krokodiloak dragoia gogorarazten duela esaten da eta, segur aski, Biblian aipatzen den Leviatán munstroa bezalakoxea dela, garai primitiboetan kaosaren izakietako baten berdin-berdina (1993: 115). Aurrerago, Ernst Aeppli psikologoaren hitzak hartuz, krokodiloa gure barne-energien sinbolo ezkorra dela ere aipatzen da (ibid., 116) eta ipuin honen kasuan behintzat, hala da.

4. Erritmoa, irakurketa-gidari.

Aztergai dugun ipuineko erritmoa hasieran nahiko bizia da: “Garbitu eta bizarra egin zuen. Beti bezala. Laranja ura hartu zuen. Beti bezala. Eta gero janzten hasi zen” (7).

⁷ Jatorrizkoa: “(...) al ser humano situado a lborde de labismo de la deshumanización le cuesta reconocerse a sí mismo, o bien, le cuesta aceptar que *eso* es él mismo”.

Paradoxikoa da egunerokotasuna adierazten duten esaldi errepikakorrak –astuntasuna adierazten duten “Beti bezala” horiek, alegia– azkartasuna irudikatzen duten esaldi motzekin nola lotzen dituen. Erritmo hori, baina, baretu egiten da berehala, nahiz eta esaldiak ez dituen inoiz asko luzatzen, irakurketa eroso eta ulergarri baten mesedetan.

Halaber, hizkera argia, zuzena, testuinguru bakoitzera moldatua (ohar gaitzen J.J. hika aritzen dela harakinarekin eta zuka beste pertsonaiekin) eta zailtasun handirik gabea izateak erritmoaren bizitasunean laguntzen du. Mariasun Landak hizkuntza estandarren alde egiten du, beharrezko ez dituen apaingarriak saihestuz. Asmatzen duen lexikoa ere ez da batere astuna, alderantziz, zientzia arloari jarraiki, krokodilitis bezalako gaitzen izen irriarriak asmatzen ditu. Ildo horretan, idazleak dio bere erronketako bat baliabide linguistikoak direla: “haurtzaroa oso gai interesgarria dela uste dut, zirrarak eta sentimenduak baliabide linguistiko gutxirekin, modu simple batean kontatu behar direlako. Estiloari dagokionez, sinpletasun hori lortzea oso zaila da, eta formak garrantzi handia hartzen du”⁸ (Euskonews & Media).

Testuaren antolaketak berak ere badu zerikusirik irakurketaren bizitasunarekin, zeren, narrazioa pasartetan banatzen duten 12 kapituluek orrialde gutxi izateaz gain (5 orrialde batz bestea), ia denetan ageri baita elkarrizketaren bat. Gainera, kontakizuneko kapitulu bakoitzak ongi eusten dio jakin-minari eta horrek ere abiadura handitzeko balio du. Bestalde, narrazioaren banaketa bera oso orekatuta dago, seigarren kapitulura arte J.J.-k pairatzen duen gaitzaren progresioa baita hizpide eta, ondoren, irtenbidearen bidean gertatzen diren egoerak baitira solasgai.

Irudipena dut kontakizunean markatzen den erritmoak gure gizarteko bizitzaren azkartasuna irudikatu nahi duela eta horregatik dagoela hain zaindua. Are gehiago, ordu batzuetan irakurtzeko ipuina izateak egungo bizitza-erritmoaren barruan kokatzea errazten duela pentsatzen dut. Hala ere, ez da dena horren ezkutuan egiten, narrazioan bertan gizarteko bizimoduari eginiko kritikaren arrasto nabarmenak ere badira-eta: sendagileari “Bizkorregi” deitzeaz gain, bere kontsulta orduak “goizeko hamaikak bost gutxietatik hamaikak eta hogeita bostera arte” (29) dira, ordu erdikoak soilik. Izurra

⁸ “(...) me parece que la infancia es un tema [de] sumo interés, porque hay que contar las emociones y los sentimientos con pocos recursos lingüísticos, de un modo muy simple. Estilísticamente, conseguir esa simplicidad es muy difícil, y la forma adquiere mucha importancia”.

izurtzeko, gogoraziko dut tarte horretan edo antzekoetan izan ohi dutela haurrek zein gazteek jolastordua.

5. Amaieraz

Kontakizunaren bukaerak protagonistari esperantza ekartzen dio, alde batetik, aspalditik ezkutuan maitatu duen pertsona etxera bila etorri zaiolako eta harekin bizitza berri bat hasten duelako (adiskide gisa gutxienez) eta, beste alde batetik, laguntza horren bidez krokodiloa ohe-azpitik desagertu eta sugandila bihurtu zaiolako, zeren, Anabel Sáizen gogoratzen duen bezala, “krokodilo hori ez da behin betirako desagertzen, behin eta berriz itzultzen da, baina, gutxienez, harekin bizitzen ikas daiteke”⁹ (2007: 15).

Dena dela, amodio-istorioak ez du inolaz ere kontakizunaren amaiera suposatzen, zeren, “[Mariasun Landaren] istorioak ez dira inoiz ixten, izatekotan pasarteren bat amaitzen da, baina ez istorioa”¹⁰ (Sáiz, 2007: 16). Kontakizun honetan Landak oso neurtuta du noiz amaitu behar duen istorioak, zeren, nire ustez, protagonistaren buruhaustek ezagutu eta horiei aurre egiteko moduak askoz ere erakargarriagok dira bikotearen etorkizunaz jardutea baino eta, horregatik, idazleak irakurle bakoitzaren irudimenean uzten du bi pertsonaien ibilbideari jarraitzeko aukera, betiere amaieran egiten den maitasunarekiko apustu garbia ezeztatu gabe.

Manu Lópezen hitzetan, aldiz, “(...) liburuak aurreikus daitekeen amaiera du, klasikoa, nolabait esatearren, narrazioari dramatikotasuna kentzen diona”¹¹ (2004: 181). Ez dakit bukaera aurrez jakin daitekeen ala ez, baina egia da nahiko topikoa dela. Hala ere, horrek ez du kentzen egoera latzari aurre egiteko amaiera aproposa denik.

6. Errealismo kritikoa kokatutako ipuina

⁹ Jatorrizkoa: “(...) ese cocodrilo nunca desaparece del todo, que vuelve una y otra vez, pero, al menos, se puede aprender a vivir con él (...)”.

¹⁰ Jatorrizkoa: “Sus historias (...) nunca se cierran del todo, acaso terminan un episodio en particular, pero no toda la historia”.

¹¹ Jatorrizkoa: “(...) el libro tiene un final previsible, clásico, por decirlo así, que resta dramatismo a la narración”.

Errealismo kritikoa gizarteko arazoak literaturara ekartzen dituen korronte literarioa da. Xabier Etxanizen hitzetan

“Literatur testuak une atsegina eta entretenigarria eskaintzeaz gain, gogoeta eragin nahi du irakurlearengan (...). Egunerokotasunaren ikuspegi kritikoa azalduz, gogoeta sortarazi nahi du irakurlearengan, gizarte honen alde on eta txarrak ikusi, gizakion arazoak ezagutu... bizimodu, gizarte hobe baten alde ari gaitzen. Ekologia, langabezia, askatasun eza, bakea, maitasuna, barne arazoak... horiek eta antzeko beste batzuk izango dira **errealismo kritikoa**¹² horren barnean ukitzen diren gaiak. Literatur idazlearen lana izango da narrazio horiek planfleto hutsak izan beharrean, literatur testu ederrak sortzea.” (Etxaniz, 1997: 396-7)

Korronte hau bereziki interesgarria iruditzen zait, haur eta gazte literaturan gertaturiko “aldaketa handiena kritika sozialeko lanak edota geure burua apur bat hobeto ezagutzen laguntzen duten lanak izan [bait]ira” (Etxaniz, Basque Literature). Idazle errenteriarra horrekin jabetuta dago, izan ere, El País egunkariari eskainitako elkarrizketa batean ondorengo zioen: “arazo errealak islatzen saiatu naiz, hauraren problematika sozial eta psikologikoaren bidez. Gai horiek, jakina, modu irudimentsuan eta fantasiatsuan erabiltzen ditut, baina ideia, etika eta mundu-ikuskera batzuk transmitituz”¹³ (19-03-2002).

Mariasun Landaren ipuin gehienak errealismo kritikokoaren barnean kokatzen dira, bakardadeaz, lotsaz, beldurrez, barne-gatazkez etab. hitz egiten dutelako, ez soilik aztertu dudana, baita, esaterako *Txan fantasma* (1984), *Alex* (1990), *Julieta, Romeo eta saguak* (1994) eta *Nire eskua zurean* (1995) ipuinak ere.

7. Ondorioak

Mariasun Landak *Krokodiloa ohe azpian* ipuineko istorioarekiko distantzia bat mantentzen duen arren (hirugarren pertsonan ari den narrazioarengatik, J.J. izena duen protagonistaren eta narrasti baten bidez esaterako) irakurleengana heltzeko zubi sendoak eraikitzen ditu eta horren erakusgarri da liburuak izan duen arrakasta.

¹² Azpimarra nirea da.

¹³ “He querido reflejar problemas reales, con una problemática social y psicológica del niño. Por supuesto, trato estos temas de una forma imaginativa y fantasiosa, pero vehiculando unas ideas, una ética, una visión del mundo”.

Istorioak ez ezik, kapitulu bakoitzaren goialdean hurrengo eszenaren berri ematen diguten bineta txiki bana ere badago. Aipagarria da Antton Olariaga marrazkilari ezagunak egin dituen binetok kontakizunaren atal bakoitza oso ongi laburtzen dutela (hamargarren kapituluko ñabardurak horren erakusgarri) eta kontakizuneko umore berbera dariela. Marrazkien eta ipuinaren konbinazioa, beraz, bikaina da eta irakurle txikienentzako entretenigarriagoa izan daiteke.

Egin ditudan interpretazioak gorabehera, sarreran adierazi bezala, liburu honek irakurketa-maila desberdinak egiteko aukera ematen du irakurlearen adinaren arabera eta, beraz, batzuek J.J.-k krokodilo bati dion beldurrak sorturiko istorioa ikusiko duten bitartean, beste batzuek narrazioaren atzean salatzen dena ulertuko dute.

Idazle errenteriarrek ipuin honekin irakaspen bat ematea baino, irakurleak entretenitu eta gizarteak duen bizimoduaren kritika egitea izan du helburu, baita egoera lazgarriei aurre egiteko bide batzuk aurkeztea ere. Argi dago haurren irakurketarako eta hausnarketarako gaitasunean sinesten duela Mariasun Landak, horregatik eskaintzen baitu bere ipuinetan irakurketa ezberdinak egiteko aukera. Hala ere, idazleak berak aitortzen duen moduan, jakina da “haur eta gazte literatura onak ez ditu[ela] helduak aspertzen”¹⁴ (Euskonews & Media, 2000).

¹⁴ “La buena literatura infantil y juvenil no aburre al adulto”.

Bibliografia

Biedermann, Hans. 1993 [1989]. *Diccionario de símbolos*. Paidós: Barcelona. Itzultz. Juan Godo Costa.

El País. “Entrevista: Mariasun Landa. Escritora”. 2002-03-19.

Etxaniz Erle, Xabier. 1997. *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

_____. “Haur eta gazteentzako egungo literatura” in *Basque Literature*.
Online: <http://www.basqueliterature.com/basque/historia/hauretagazte> [kontsulta: 2010-11-11].

Euskonews & Media. “La buena literatura infantil y juvenil no aburre al adulto”.
Mariasun Landari elkarrizketa. 2000.

Landa, Mariasun. 2008 [2002]. *Krokodiloa ohe azpian*. Alberdania: Irun.

López Gaseni, Manu. “Un cocodrilo bajo la cama” in *Panorama de la Literatura infantil y juvenil vasca actual (Revista Behinola 1999-2004)*. Pamiela: Iruñea. 180-181.

Olaziregi, Mari Jose. “Mariasun Landa, *Un cocodrilo bajo la cama*, SM, Madrid, 2004” in *Cuadernos del Minotauro*, 1, 2005, 155-6.

Sáiz Ripoll, Anabel. “La infancia es un espejo hecho añicos que nos obstinamos en recomponer: La literatura de Mariasun Landa” in *CLIJ* 206, 2007, 7-20.